

2018-2020 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako eta/edo ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2018-2019 aldirako Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak.

Deialdiaren helburua:

Deialdi honen xedea da diru-laguntzak ematea honako bi laguntza-lerro hauetako ikerketa-proiektuak egiteko:

1.- 2018-2020 aldian egin beharreko Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko Proiektuetarako laguntza-lerroa (aurrerantzean, OIAP); bi modalitate ditu:

- 1. modalitatea: Erakunde bakarreko ikerketa-taldeen proiektuak.
- 2. modalitatea: Lankidetzeta-proiektuak, zeinetan parte hartzen baitute erakunde ezberdinetako ikertzaile-taldeek proiektu berean.

2.- 2018-2019 aldian, ezagutza unibertsitatetik enpresetara eramatea -enpresa horientzat interesgarriak diren arloetan- helburu duten ikerketa-proiektuetarako laguntza-lerroa (aurrerantzean, UEP). Parte hartzen duten enpresek proiektuaren kostu osoaren % 10, gutxienez, finantzatu beharko dute, eskudirutan egindako ekarpenarekin.

Onuradunak:

OIAP lerroan:

a) Oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketa-zentroak (BERC).

b) Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitateetako ikerketa-egiturak. Agindu honen 6. artikuluan azaldutakoaren arabera ikertzaile-taldeak izan behar dituzte. **Ikerketa-taldeak «A» edo «B» talde moduan egiaztatuta dagoen ikerketa-talde baten parte izan beharko du, eta ez da euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak laguntzeko deialdiko diru-laguntzen onuradun izango.**

UEP lerroan:

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitateetako ikerketa-egiturak. Agindu honetako 6. artikulua arabera prestatutako ikertzaile-taldeak izan behar dituzte plantillan. **Ikerketa-taldeak «A» edo «B» talde**

moduan egiaztatuta dagoen ikerketa-talde baten parte izan beharko du, eta ez da euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzeko deialdiko diru-laguntzen onuradun izango.

Enpresa parte-hartzaileak edo parte-hartzaileek, **zeinek den-denek eduki behar baitute beren egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan** eta eskaeran parte hartu behar baitute, ezin izango dute jaso diru-laguntzaren parterik, ez zuzenean ez zeharka. Beraz, proiektuaren esparruan, unibertsitate onuradunak ezin izango ditu horiek kontratatu lanak egiteko, eta enpresa horiek ezin izango dute hornigairik saldu, ezta geldialdi teknikoengatik kobratu ere. Aitzitik, eskudirutan egindako ekarpen ekonomikoez gain, honako hauek ipini beharko ditu enpresak: proiektuaren helburuak lortu ahal izateko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak, horrek, izan ere, enpresak proiektuaren emaitzekiko duen interesa uzten baitu agerian. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatutako eragileak ez dira enpresatzat hartuko kasu horretan.

Ikerketa-proiektuen betekizunak

Proiektuak 1 eta 3 urte osotan egiteko eskatu ahal izango dira OIAP lerroan, eta 1 edo 2 urte osotan egiteko UEP lerroan, eta, azken urtearen ondoren, lau hilabeteko aldi gehigarria egongo da amaitzeko.

2018ko ekitaldian hasiko dira proiektuak gauzaten, baina administrazio-jarduketak 2021eko ekainaren 30a baino lehenago amaitu behar dira, OIAP lerroako, eta 2020ko ekainaren 30a baino lehenago,.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak.

	OIAP	UEP
Laguntzaile ez-doktore diren langileak	Laguntzaileen kontzeptuan, lanaldi osoagatik –hau da, urtean 1.600 ordu– 18.200 euroko diru-laguntza jaso ahal izango da laguntzaile beraren lehenengo eta bigarren urteetarako, eta 22.800 euro hirugarren urterako, OIAP lerroaren kasuan. Proiektuan aritzeko lanaldia laburragoa izanez gero, urtekako lanaldi horren arabera kalkulatu da kopurua, proportzioan.	
Doktore diren langileak	Ez da onartzen	Doktore diren laguntzaileen lanaldi osoagatik –hau da, urtean 1.600 ordu– urteko bakoitzeko 37.000 euroko diru-laguntza jaso ahal izango da. Proiektuan aritzeko lanaldia

		laburragoa izanez gero, urtekako lanaldi horren arabera kalkulatu da kopurua, proportzioan.
Material inbentariagarria		Proiektuaren kargura eskuratutako ekipamendu bakoitzak urteko 18.000 euro baino gutxiago balio beharko du, BEZik gabe. Deialdi honetatik kanpo daude esplizituki altzariak eta instalazioak, baita kudeaketarako ekipamendu informatikoa erostea ere.
Material suntsikorra	Kanpo geratzen da bulegoko material orokorraren finantzaketa	
Bidaia	Proiektuaren jardunak burutu ahal izateko egiten direnak. Bidaia-gastuak onartuko dira, proiektua betearazteko azken urtean lortutako emaitzak erakusteko, baina ikerketataldeko pertsona bakar batentzat soilik.	
Bestelako gastu batzuk	Finantzatutako urteko aurrekontuaren % 5 gehienez, baldin eta proiektuaren helburuak garatzeko beharrezko direla justifikatzen bada.	

Taldeen osaera

OIAP lerroan:	UEP lerroan
<p>3 pertsonak, gutxienez, osatuko dute taldea proiektuak irauten duen bitartean. Gutxienez horietatik bik doktore-titulua izan behar dute.</p> <p>Gainerako ikertzaileak ikerketalaguntzaile izan ahalko dira, eta gradu-, lizentziatura-, ingeniari- edo arkitektura-titulua izan beharko dute.</p> <p>Gutxienezko dedikazioa, bada, urteko 1.400 ordukoa izan beharko da, eta talde bakoitzeko ikertzaile nagusiak urteko 420 ordu eskaini beharko ditu, gutxienez.</p>	<p>Ezinbesteko baldintza da gutxienez unibertsitate onuraduneko ikertzaile-talde batek eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duen enpresa batek parte hartzea proiektuan.</p> <p>Ikerketa-taldea gutxienez hiru lagunek osatuko dute, honela:</p> <p>a) Proiektua zuzenduko duen ikertzaile nagusi bat, doktore-titulua izango duena eta erakunde eskatzailearekin estatutupeko edo lan-kontratuko lotura bat izan behar duena.</p> <p>b) Gainerako ikertzaileak, doktore-titulua edo lizentziatura, arkitektura edo ingeniari- edo unibertsitateko gradua izan dezaketenak. Erakunde parte-hartzaile bakoitzean baldintza</p>

	<p>hori betetzen duen ikertzaile bat gutxienez egon beharko da, eta erakundearen plantillakoa izan beharko du.</p> <p>c) Enpresetako langileak, programaren xede den teknologiaren arloan esperientzia egiaztatua dutenak eta aurreko paragrafoetan adierazitako kategorietan sartzen ez direnak.</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Ikertzaile nagusi bakoitzaren eskaera bat baino ez da onartuko lerro bakoitzeko. • Ikertzaile bakoitzak eskaera batean baino ezingo du parte hartu deialdiko lerro bakoitzeko. • Ezingo dute deialdi honetako lerroetan parte hartu deialdi honetako bi lerroekin parekagarriak diren aurreko deialdietan finantzaturako proiektuetan parte hartu duten edo parte hartzen ari diren ikertzaileek, baldin eta, eginbideak betetzeke izatearen ondorioz –emaitzak argitaratzea izan ezik–, eskaera aurkezteko unean oraindik euren jarduerak amaitu ez badituzte. 	

Kreditu erabilgarria

OIAP lerrorako: 690.000 euro erabiliko dira guztira. Aurrekontuaren % 50 modalitate bakoitzeko proiektuak finantzatzeko izango da.

UEP lerrorako: 280.000 euro erabiliko dira guztira

50.000 eurokoa da diruz lagundu daitekeen bi lerroetako ezeinetan proiektu bakoitzarentzat ezarritako gehieneko finantzarria, aintzat hartuz OIAP lerroko 2. modalitatean, bi erakunde edo gehiagok lankidetzan dihardutela proiektu berean.

Eskaerak aurkezteko modua:

Agindu honetako I. eranskinaren arabera bete beharko da eskabidea. Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren esteka honetan egongo da erabilgarri deialdiko lerro bakoitzeko eskabide- inprimakia:

https://www.euskadi.eus/diruz_laguntza/-/diruz_laguntza/2017/piba-pue-2018/

Lehenik, proiektuko ikertzaile nagusiak alta eman beharko du aplikazioan erabiltzaile gisa, dagoeneko hala ez bada, edo ziurtagiri elektronikoko pertsonalaren

bitartez sartu (esate baterako, NAN elektronikoa erabiliz). Eskabidea zein laguntza-lerrotan egin nahi duen hautatu eta gero, aplikazioan azaltzen diren jarraibideak bete beharko ditu, eskabidea amaitu arte.

OIAP lerroko 2. modalitateko eskabideen kasuan, parte hartzen duten erakunde guztiak izango dira eskatzaileak

UPV/EHUko ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura lortzeko prozedura:

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2018ko urtarrilaren 10a	Ikertzaile nagusia	I eranskina-Eragile eskatzailearen ikertaldea bidaltzea proposatutako langileen zerrendarekin Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan. Ikertzaile Nagusiak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena (barne dokumentua)
2018ko urtarrilaren 19a	Ikertzaile nagusia	II eranskinaren – eskaera eta Ikerketaproiektuaren memoria bidaltzea Parte hartuko duen ikertzaile bakoitzak sinatutako agiria (erantzukizunpeko adierazpena), 2018-2019 aldiak aktibo dituen proiektuei zenbat denbora eskainiko dien, eta bakoitzak eskatutako proiektuari zenbat denbora eskainiko dion
2018ko urtarrilaren 23a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Eskaeren sinadura elektronikoa Frogagiriaren bidalketa
2018ko urtarrilaren 24a		Deialdiaren bukaera

Ikertzaile nagusiaren campusaren arabera, eskatutako dokumentazioa aipatutako epearen barruan bidali beharko da dagokion helbidera.

- Campus Bizkaia: igz.bizkaiadeialdiak@ehu.eus
- Campus Gipuzkoa: igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.eus
- Campus Araba: igz.arabadeialdiak@ehu.eus

Ezin izango da ziurtatu ordezkari legalaren sinadura lortuko denik, behin aurreko taulan aipatutako epeak igaro direnean.

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/-/diru_laguntza/2017/piba-pue-2018/

Harremana

UPV/EHU: 94 601 8008

Eusko Jaurlaritzan: 945 01 8000